



IRAKASLEAK

DBH • DBHO • OLH

2025 • 2026



GRAN TORINO

Clint Eastwood, AEB, 2008.

FITXA TEKNIKOA:

Jatorrizko izenburua: *Gran Torino*.

Urtea: 2008.

Iraupena: 119 min.

Herrialdea: AEB.

Zuzendaria: Clint Eastwood.

Gidoia: Nick Schenk. **Istoria:** Nick Schenk, Dave Johannson.

Musika: Kyle Eastwood, Michael Stevens.


Argazkia: Tom Sternl.

Aktoreak: Clint Eastwood, Christopher Carley, Bee Vang, Ahney Her, John Carroll Lynch, Cory Hardict, Brian Haley, Geraldine Hughes, Dreama Walker, Doua Moua, Chee Thao, Scott Eastwood, Brian Howe.



Programa honen ideia eta garapena Irudi Biziak®-enak dira.





MATERIAL DIDAKTIKOAK NOLA LANDU

“BAINO LEHEN...” MATERIALA

Atal honen asmoa da filmean egongo diren gai nagusiak ikasleei azaltzeko. Gai horiek sakon landuko dira filma ikusi ondoren, horiei buruzko hausnarketa kritikoa egiteko. Material hau filma ikusi aurretik lantzen da, eta ikus-entzunezko material batez lagunduta egongo da: film laburrak, elkarrizketak, hausnarketak, etab.

- **Lanketarako behar den denbora: Ikastordu 1 edo 2.**

“IKASLEAK” unitate didaktikoa eta “IRAKASLEAK” unitate didaktikoa.

FILMEAN ZEHAR: Atal honetan agerraldirik garrantzitsuenei helduko diegu ezarritako helburu zehatzak lantzeko. Ikasleek pertsonaien bizipenak aztertuko dituzte era zehatzago batean. LAU ataletan banaturik:

1. Zure aitak neure onetik ateratzen nau beti.
2. Ilea mozte nahi nuke, astirik baldin baduzu.
3. Ni gustura nago: neska politak, jateko ederra... eta thaok ez nau nekarazi gainera.
4. Aizu, asko aldatu zara. harro nago nire laguna zarelako, bizitza guztia duzu aurrean, nik ez.

- **Lanketarako behar den denbora: 3-4 ikastordu.**

AMAIERAKO ARIKETA: Aurreko hiru ataletako edozeinekin hasitako lana amaitzeko balio du.

LANKETARAKO:

Gure web orrialdean izena emanez, www.irudibiziak.com, gure material didaktikoak aurkituko dituzu.

1. ... BAINO LEHEN saila.
2. Filmaren trailerra.
3. “IKASLEAK” unitate didaktikoa eta “IRAKASLEAK” unitate didaktikoa.
4. Ikasleekin lantzeko atala XEHETASUNEZ: FIKZIOTIK ERREALITERA
5. Agerraldi guztien bideoak.

GOMENDIO BAT:

Ikasleak estimulatzeko, honakoa egitea iradokitzen dizugu:

1. BAINO LEHEN... atala landu.
2. Filma ikusi baino lehen, trailerra ikusi.
3. Filmari buruzko oinarrizko informazioa eman: izenburua, egilea, lantzen diren gaiak...
4. Aldez aurretik eskaintzen dizugun materiala lagungarria izan dakizuke.
5. Filma osorik eta jarraian ikustea egun berean.



“GRAN TORINO”

DIDAKTIKA UNITATEA:


Testuak: Yarima Etxeberria.

Argitalpena: IRUDI BIZIAK.

Bailen 1, 3.a, 48003 Bilbo.

Tfno. 944 166 677

irudibiziak@irudibiziak.com



FILMEAN ZE HAR

1. ZURE AITAK NEURE ONETIK ATERATZEN NAU BETI

HELBURUA: Besteekiko jarrera oldarkor eta urrunaren atzean pertsonaren jokabidea azaltzen duten beste arrazoi batzuk egon daitezkeelaren eta fatxada horren atzean beste sentimendu desberdin batzuk ezkutatuta egotearen ideietan sakontzea.



Walt Kowalski Detroiteko auzo batean bizi den automobil langile erretiratua eta Koreako Gerrako soldadu ohia da. Auzo horretatik alde egin dute lehengo bizilagun guztiek, eta Asiako, Afrikako, Amerikako eta Latinoamerikako immigranteak bizi dira orain. Badirudi bere inguruan dena hankaz gora jartzen ari dela: emaztea hil berri du, seme-alaba eta bilobekin harreman axolagabea du eta zahartuz doa. Denekin dago etengabe haserre: Elizarekin, bizilagunekin eta gizarte osoarekin. Garai zaharrak bakarrik gogoratzen ditu, eta ez dago batere pozik bizi den mundua nola eboluzionatzen ari den ikusita. Bere jabetza preziatuena 72ko Ford Gran Torino bat da, filmari berari izenburua emango diona. Pentsa genezake Gran Torinoak iraganeko garai horien oroitzapena sinbolizatzen duela, baliagarria sentitzen zen eta mundua ulertzen zuen beste garai horrena, oroitzen duen eta itzuliko ez dela dakien garai horrena.

Emaztearen hileta berean eta ondorengo ospakizunean Walt bakarrik ikusiko dugu, inguruan dituen pertsona ugarietatik inoren babesik jaso gabe; segur aski, norbait maitasun keinu batez hurbilduko balitz, gogor eta/edo sarkasmoz arbuatuko luke. Serio eta maltzur jotzen du, begiradaz ere kritikatzuz (gogora dezagun Walt-en begirada bere biloba Ashley elizan sartzen ikusten duenean, zilborreko piercing-a erakutsiz, edo bere bilobak sotoko kutxan miaka aurkitzen dituenean) eta denbora guztian hortz artean jardunez, marmarka ari balitz bezala.

Waltek bere emaztearen hiletaren arratsalde honetan **pentsatzen eta sentitzen** duen baina adierazten ez duen sakontzen badugu, pentsamendu eta sentimenduen bi mailatan pentsatu beharko genuke. Lehen maila batean, pelikulako beste une batzuetan entzuten diogunaren antzeko zerbait jasoko luke; adibidez:

- Pentsamenduak: Ea laster bakoitza bere etxera joaten den, txorradak baino ez dituzte esaten, hemen daude, baina inori ez zaio axola bera hil izana, denak dira jasanezinak.
- Sentimenduak: haserre, atxikimendurik eza, gogaitasuna, asperdura.

Baina, segur aski eta kontuan hartuta emaztea galdu duela, berak lur gaina zapaldu duen emakumerik onena izan dela eta diferentziaz gertatu zaion onena izan dela esaten duelarik, bere egoeran gizatiarrena izango litzateke tristura eta bakardadea sentitzea. Hortik aurrera bere bizitza nora joango den eta zer egin zentzua izan dezan pentsatzea. Eta izkutatu arren benetan horrela sentitzen dela pentsa dezakegu.

Bere benetako sentimenduak ezkutatzeko, oso maiz adierazpen ironikoak eta ez oso atseginak erabiltzen ditu besteekiko harremanetan; 1. ESZENA "estrategia" horren adibide ona da. Inguruan dituen pertsonen honelako esaldiak oparitu dizkie:

1. *Azazkalak pintatu berri izango dituzu.* – Bere biloba Ashleyri.
2. *Nire izena Kowalski jauna da. Bizitzaz ezer ez dakien 27 urteko mutil birjina zarela.* – Aita Janovichi.
3. *Amaren huts handia dugu, ezta?* – Daisy, bere txakurrari.
4. *Zenbat uretako arratoi sartzen dira ba gela batean?* – Bere buruari esaten dio, Lor familiari buruz.
5. *Zure emazteak hartu ditu jada amaren bitxi guztiak.* – Mitch, bere semari.
6. *Nor zara zu? Zertara zatoz? Bota, bota behingoz! Hitz egin behingoa!* – Thaori.
7. *Begirune pixka bat talo mutur, dolu eguna da eta.* Thaori.

Esanguratsua da, filmaren hasieran behintzat, esaldi atsegin bakarrak bere txakur Daisyri: *Zenbat botatzen dugun faltan ama, ezta?* Goazen, polit hori, eta bere autoari, zoragarria da zuzentzen dizkiola. Segur aski, biak beren iraganeko eta oroimeneko bizitzakoak direlako eta baztertu beharreko gizakiak ez direlako.

Gutxi entzuten diogu Walti bere buruaz, baina susma dezakegu munduarekiko desatsegintasun hori, bere buruarekiko ere sentitzen duela; ispiluan begiratzen dio bere buruari eta nekatuta, zahartuta, gaixorik ikusten du bere burua eta ez zaio gustatzen zertan bihurtu den.



Ariketan ematen diren azalpen posible guztiek balio dute, Walt en eta bere familiaren artean dagoen harreman hotzaren zati bat azaltzeko. Ezin dugu jakin zer izan zen lehenago eta zer geroago, baina Walt en familiak ere ez du tratu atseginik berarekin: Ashley pentsatzen ari da zer irabaziko duen bere heriotzarekin, bilobak bere gauzetan nahasten ari dira baimenik gabe, semea interesatuta dagoela dirudi baina futbolerako sarrera batzuk lortzea bilatzen du, egoitza batera bidali nahi dute, berari non bizi nahi duen galdetu gabe...

Ikasleei proposatuko diegu gogoeta egin dezatela euren edo gertuko pertsonen agresio edo urrun egoteko izan ditzaketen benetako arrazoiei buruz. Proposatutako jardueraren helburua da, batez ere, ikasleak **honetaz jabetzea**:

1. Batzuetan **pertsona batekin haserretu daitezkeela, baina beste batekin adierazi.**
2. Batzuetan, **besteekiko haserrea edo distantzia adieraz dezaketela, baina beste emozio batzuk sentitzen ari daitezkeela** (nekea, beldurra, tristura, kezka...).
3. Erabilgarriagoak iruditzen zaizkien beste aukera batzuk.



2. ILEA MOZTEA NAHI NUKE, ASTIRIK BALDIN BADUZU

HELBURUA: Heldu eta nerabeen arteko harremanak gazteen garapen osoan izan ditzakeen loturak aztertu.

WALT ETA THAO – THAO ETA WALT: Walt en emaztearen hiletaren ondoren, Thao haren etxera autorako matxardak eskatzera doanean ezagutuko dute elkar Walt eta Thaok. Lehenengo harreman honen ondoren izango da **2. AGERRALDIA**, Thaok Walti autoa lapurtzen saiatu zela airtortzen diona.

Hasierako ariketa batean, ama, amona eta arreba nagusiarekin bizi den 16 urteko Thao nerabearenganako hurbilketa bat egitea eskatuko zaie ikasleei. Etxeko gizonetzko bakarra da Thao, imitatu eta harengandik ikasteko gizonetzko eredurik ez izatea izan daiteke agian, lotsa eta bere buruarekiko ziurtasun ezaren azalpena. Atsegin du irakurri eta ikastea, badirudi

arazoak dituela bere adinekoekin harramanak izateko, eta isekak jasotzen ditu, bai Walt eta baita bere lehengusu Spider-en taldekoengandik nesken zereginak egiteagatik (etxeko lanak, lorategia apaindu...). Thaoren amona eta osaba baten arteko elkarriketarengatik soma dezakegunez, Thao etxeko gizon bihur daitekeenaren zalantzak dauzkate.

Ikasleek pertsonaia eta euren burua islaturik ikus ditzaketen alorre buruz hausnar dezakete. Interesgarria litzateke ikasleak honako honetaz hausnarraraztea:

- Thao nola uste dute sentitzen dela familia, auzo eta bere buruarekin?
- Zein litzateke euren jarrera antzeko egoera batean?

2. 3. ETA 4. AGERRALDIAK ditugu **Walt eta Thaoren arteko harremanean ematen den eboluzioaren adibide**. Hasierako harremanean, ingurukoei bezala tratatzen du ezatseginez Waltek Thao; badirudi ez duela mutikoa gizabanako bezala "ikusten". Baina, apurka apurka, honetaz ohartu (izan daiteke, Sueren nortasun ireki eta asertiboak beregan eragina izatea eta hasteko "Sueren nebaz ohartzea"?) eta harekiko interesa agertzen du. Batez ere, bere baloreekin bat egiten duten Thaoren hainbat arlo ikusten dituzenean: auzoko bati beste nerabe batzuk bota dizkioten erosketak biltzen lagunduko dionean (hara, entzungo diogu Walti), oso iraunkorra eta saiatsua da agintzen dizkioten lanetan azken batean, Waltek agian, baloratu egiten du Thao mutiko lotsatia izatetik "gizon egiten" ari dela ikustea. Izan ere, oso esanguratsua da ekaitzaren erdian Walten begiradapean, Thao lanean ari den agerraldia.

Walt gero eta gehiago inplikatzan da Thaorekin:


- Bien arteko "lan tratua" gairikiko interesa agertzen du mutikoaz eta etorkizunerako kezka azaltzen dio ("ez duzu ikasteko asmorik?").
- Baloratu, errespetuz tratatu eta uste osoa dauka haren gaitasunetan (edozein tokitan aurkituko zenuke lana), eta gero eta gutxiago dira hari egindako irain eta deskalifikazioak.
- Ozenki onartuko du hura hezten ari dela (zurekin lan egin eta gizon egin beharko zaitut).
- Thaok gero eta gehiago erantzuten dio Walti eta baita aurre egin ere (ordaindu beharko zenidake, oiher egiten dio estul egitean odola bota eta erretzen jarraitzen duela ikustean).

Elkar ezagutu eta hurbildu ahala, handiagoa da bien arteko afektuzko inplikazioa. Ez du argi esango azken elkartzera arte, baina, Walten adierazpenean ikus dezakegunez, maitasuna hartzen ari zaio Thaori, eta poztu egiten da Youarekin dabilela esaten diotenean. Era berean, Thaok eskertu egiten du Walten laguntza eta, agian, miretsi egiten du bizitzan lortu duena.

Eta gero eta argiago dago aita eta semea edo maisu eta ikaslearen artekoaren antzeko harremana sortu dela bien artean. Suek ozenki esango du Walti eskertuko dionean: *eskertzekoa da Thaotaz horrela arduratzea. Ez dauka bizitzan adibidetzat izan dezakeen inor (...) Nahiago nukeen gure aita zure antzekoa izan balitz. Atsegin duzu, ez da? Hainbat gauza irakasten diozu, salbatu egin duzu. Harreman honi esker, Thaok bere buruarekiko ziurtasuna berreskuratu eta egoera berriei aurre egiten ausartuko da (emakumeekiko harremanetan, lanean...).*

Thao hel dadin nahi du Waltek, eta emakume on bat aurkitu, talde baten laguntzarik gabe bere burua defendatzen ikasi, prestakuntza eta lanbide bat izateko gauza izan, lan mailan harremanak izan eta bere burua "saltzen" ikasi, eta irainak erantzun gabe ez uztea bezalako **ideia garrantzitsuak transmititzen dizkio.**

Bestalde, Thaorekin daukan harremanak, **berak dauzkan gabezia afektiboak betetzeko** balioko dio: bera eta bere osasunaz arduratzen da Thao eta harengandik asko ikasi dezakeela uste du (semeek, zaharretxera joan beharko lukeen zahar eta balio gabetzat daukaten bitartean) antzeman daitekeenez, eta azkenean egiten ez badu ere badirudi Waltek Thaori medikuarengana laguntzeko eskatu nahi diola.





Ikasleei eskatu nahi diegun hausnarketa pertsonalenak, **adinekoei buruz daukaten ikuspuntuari eta etxeko adinekoen harremanak egiten dieten ekarpenari buruz sakon dezatela lortu nahi du.** Adinekoei buruz nerabeek daukaten ikuspuntu soziala biltzen duen ikerketa batek dioenez, honakoa ondoriozta dezakegu:

... aurrenerabeek adinekoei buruz daukaten ikuspuntu ezkorra. Izan ere, adinean gora egitea, zahartzaroari loturik dauden giza eta kultur mailako arazoei gaineratutako sufrimendu bihurtzen da. Esaterako, gaitasunen galtzea bizitzako alditzat hartzen dute zahartzaroa, eta aro honetan interesak eta bizimoduak "zaharkituak" egoteaz gain, ez dira egungo ohituretara egokitzeko gauza. Aro berrietara ez egokitzeko arazo hau "egokitu nahi ez izatea" eta orokorrean edozein aldaketaren aurka egotearen ondorio da. Ildo honetan, persona sedentarioak eta betebeharrak ez izatean, euren aisialdia jarduera pasiboetan ematen dutela diote (...)

Nerabeen ustetan, aipatutako arloei buruzko adinekoen irudi negatiboa mantendu ez ezik, areagotu egiten da, eta beldurra eta ezatsegina sortzen dien bizitzaren aroa dela gaineratzen dute. (...) zahartzaroaren prozesua, bakoitzak izan duen bizitzaren arabera desberdina dela baloratzeko gauza dira. Adinekoei eranstean dieten eta bereziki kezkarria dela deritzogun ezaugarrietako bat, zahartzaroak pertsonengan "gizarte mailako baliogabetasuna" sortzen duenaren pertzepzioa da, hain zuzen ere, ez dutelako ezein lan produktiborik egiten, eginbeharrak ez dutelako, eta bakardadeak bultzaturik, etengabeko tristura egoeretan murgilduta daudelako. (...)

Gazteen ustez, gaztetasunari dagokiona ontzat ez hartzera darama zahartzaroak. Uste hau adinekoen eta gazteen belaunaldien artean dauden "konexio" arazoen oinarrian legoke.

ITURRIA: Buz Delgado, José; Bueno Martínez, Belén, (2006). "Las relaciones intergeneracionales". Madrid, Portal Mayores, Informes Portal Mayores, 66. alea. Lecciones de Gerontología. <http://www.imsersomayores.csic.es/documentos/documentos/buz-relaciones-01.pdf>.

Alternatiba bi eskaintzen dira ikasleei proposatutako azken eztabaida dinamizatzeko:

1. LEHENENGO AUKERA: Bi taldetan banatutako eztabaida, talde bakoitzak bere jarrera defendatuko du.
2. BIGARREN AUKERA: aurreko eztabaida bizkortzea. 10-15 minutuz talde bakoitzak bere argudioak defendatu ondoren, alde desberdinetatik eritziak eman ahal izateko, ikasleei taldez aldatzeko eskatuko diegu. Beste 10-15 minutuz ikasleak talde bietan ibili ondoren alde aurretik inolako azalpenik eman gabe, eztabaida eten eta defendatu beharreko jarrera biak kontuan hartuz, gelako emaitzari buruzko hausnarketa bat egitea iradoki dezakegu: zenbat ikasle geratu dira talde bakoitzean, generoa, interesak edota partehartzaileen beste ezaugarriren baten arabera desberdintasunik dagoen...

3. NI GUSTURA NAGO: NESKA POLITAK, JATEKO EDERRA... ETA THAOK EZ NAU NEKARAZI GAINERA

HELBURUA: Elkarren ezagutza eta begirunean sakonduz, gizakien arteko adiskidetasun prozesuari buruz hausnartu.

GAUZAKKOMUNEAN: Thaorekin daukan harremanarekin batera, Lor familia eta hmong etniako beste zenbait kideekin harremana estutzen hasiko da Walt. Hasieran haiekin erabiltzen dituen hitzak kontutan hartuz (zital, barbaro, mugazain, hori, jamoi, txinatar...), Waltek jarrera arrazista duela pentsa genezake, baina horrek, **arrazza edota maila arloan desberdintasun handirik egin gabe, oso ondo islatzen du inguruko gehienekiko harremanak era iraingarri eta hotzean ematen direla.** Ziniko azaltzen da bere etxekoekin eta aita Janovich-ekin ere, agian, lehendik ezagutu ez eta ezagutu ere nahi ez dituen guztiekin. **Harreman atseginagoa dauka Martin (ile-apaintzailea) eta Timekin (etxegilea), beste garai bateko lagunak direlako.**

Hasiera batean, Waltek ez du ezer jakin nahi Lor familia eta auzoko asiarrekin, ez ditu haien ohiturak ulertzen eta kritikatu egiten ditu. Baina, aldatuz joango da Walt eta Lor familiaren arteko harremana estutu ahala. **Hau ez da, Waltek hmong kulturara egindako hurbilketaren ondorioa, pertsonekin izango duen harremanarengatik** (Thao eta Suerekin, batez ere), **haiekin partekatzen duenarengatik** (bere urtebetetzea ere haiekin ospatuko du eta ez etxekoekin) **eta elkarrekiko begirunea sendotuz, haien artean sortuz doan harremanarengatik baizik.** Denborak aurrera egin ahala, Walt, bera den bezala, zoriotsuago, askoz naturalago, hmong kulturari buruzko interes handiagoa erakutsiz (agian, haiei buruzko zerbait gehiago jakitearren) agertuko da, eta ez lehen bezain isekari. Filmaren amaieran, Sue erasotzen dutenean

izango da Walt hunkiturik eta negarrez ikusiko dugun une bakarra.

Walt eta Lor familia bizitzen ari direnaren kontra, Thaok familiaren begirune eza eta presio egoera bizi du. Eta horren arrazoiak, hasiera batean Waltek hmongtarrekiko zeukan bazterketa jarrera azaltzen zuten berdinak izan daitezke: Spider eta honen taldeak ez daukate Thaori buruzko inolako interes pertsonalik, ez dute persona desberdintzat hartzen, eta ez dute haren bizimodua errespetatzen (iseka egiten diote irakurtzen dakielako edota landareak zaintzen dituelako).

“Hmong taldekide” egin nahi dute, “mexikar taldea” edo “afro-amerikar” taldeekin borrokatzeko. Inor ere ezin da desberdin izan talde barnean, eta badirudi, Spider Thaorekin haserretu egiten dela, taldekide izateari uko egitean, bera, lehengusua, egoera okerrean uzten duelako. Hasieran, eta presio handia jasan ondoren, bandakide izateko erritua betez, Thaok onartu egiten du Gran Torino autoaren lapurretan parte hartzea. Lapurretan porrot egitean, lehen baino apalago eta beldurtuago sentitzen da. Taldearen babes sentipenari buruzko alegato txikia egiten du Smokiek, baina, taldean parte ez hartzean Thao babesik gabe dagoen arren, beldurra berak ere ez du taldean sartzeraz bultzatzen. Baina, ez ote zuen taldekide izaten amaituko, Waltengan laguntza eskaintzen dion erreferentziazko persona aurkitu izan ez balu?

ARIKETA OSAGARRIA:

- HASIERA BATEAN BAKARKA. Aukeratu zuretzako garrantzi handikoak diren hiru lagun. Eta pentsa ezazu honetaz:
 - Nola ezagutu zenuten elkar?
 - Zer pentsatu eta sentitu zenuen elkarrekin egon zineten lehenengo aldian?
 - Zein egoera bizi izan duzue elkarrekin? Zein izan dira onenak? Eta okerrenak?
 - Zein dira zuen arteko antzekotasunak? Eta desberdintasunak? Nola eragiten dute zuen harremanean zuen arteko desberdintasunak?
 - Nola lortu duzue lagun onak izatea?
- HIRUKO TALDEETAN BILDURIK. Bakarka egindako hausnarpenen emaitzak bateratu eta elkarrekin pentsatu zuen adiskidetasun harremanetan nola erabakitzen duzuen (edo erabaki dezakezen) eritzi, gustu, interes, planteamendu edota aukera desberdinak azaltzen direnean?



4. AIZU, ASKO ALDATU ZARA. HARRO NAGO NIRE LAGUNA ZARELAKO, BIZITZA GUZTIA DUZU AURREAN,

HELBURUA: Hazteko eta bere bizitza sortzeko laguntza azpimarratzea, nerabe batek familiarengandik jaso dezakeen mezu nagusietako bat bezala.

8. ESZENA

WALT: *Badakizu nolakoa den gizon bat hiltzea? Asma dezakezun sentipenik txarrena da! Gauza bakar bat dago txarragoa, adorea den domina hartzea, errenditu nahi zuen mutiko bat hiltzeagatik. Bai, mutiko korear beldurtu bat, zure antzekoa. Burua lehertu nion oraintxe eskuetan izan duzun armarekin. Egutero-egutero daukat nire buruan, zuk ez duzu horrelakorik behar. Nik odola daukat eskuetan, zikinduta dauzkat, horrexegatik joango naiz bakar-bakarrik.*

THAO: *Walt, zurekin joango naiz! Atera hemendik!*

WALT: *Aizu, asko aldatu zara. Harro nago nire laguna zarelako, bizitza guztia duzu aurrean, nik ez. Eta hasitakoa amaitu behar dut. Beti amaitu dut eta bakar-bakarrik egingo dut.*

Suek jasandako eraso eta bortxaketak istorioaren amaiera zuzenduko du. Waltek, bere besaulkian jezarrita, zer egin pentsatzen ari dela dirudi... eta erabaki bat hartuko du. Lehenengo, aita Janovich-ekin hitz egingo du eta honakoa esango dio: Thao eta Suek ezingo dute sekula bakean bizi talde hori hortik dabilen bitartean, denek desagertu arte (...) dena dela, ez dute nahi dutena egingo. Ondoren, Thaori bere etxera deitu eta sotoan gordeko du giltzapean. Taldekide guztiak hilko dituela sinestaraziko die guztiei, denen arreta horretara bideratu nahi izango balu bezala. Izan ere, aita Janovich etxe aurrean izango du zain poliziarekin. Waltek bere helburua lortu duela pentsa dezakegu: Spider eta bere taldekideek tirokatuko dutenaren lekukoak behar ditu, atxilo hartu eta betirako gartzelara ditzaten.


Emaztearen nahia betetz, Walt aitortzea lortuko du aita Janovich-ek, dena dela, "espediente bat betetzeko" era bat besterik ez da izango. Bien artean sortu den konfiantzari esker, Thaorekin soilik hitz egingo du duela urteak gorderik zeuzkan sentimenduetaz. Guda garaiko bizipenek kutsu mingotsa utzi dute Walten bihotzean eta bere oroitzapenik gogorrena, Thao bezalako mutil gazte bat hiltzearen ingurukoa dela dirudi.



Eta Lor familia bandarengandik salbatzearen bere bizia emateko hartu duen erabakian, zigorra ordaindu eta okerra zuzentzearen nahia dagoela soma dezakegu. Azpimarra dezagun egoera paraleloaren sinbolismoa: Waltek korear gazte nerabe bat tirokatu zuen duela urteak eta orain, bere biziarekin salbatzen ditu Thao eta honen familia.

Zehaztasun guztiak hartuko ditu egoera horretarako. Ilea moztu, bizarra haiztoz moztu, neurriko trajea egin... gaztetu egiten dela dirudi lagunak salbatzearen bere burua hiltzen uzteko erabakia hartu duenean.

Walten hiletetako azken ospakizunak filmaren hasierara garamatza berriro, **zirkulua ixten dutela dirudien liturgia simetrikoki bi dira, baina ez da horrela.** Waltek Thaori utziko dizkio bere azken hitzak, bere domina, Daisy txakurra eta Gran Torino autoa. Azken agerraldian Daisy alboan daukala, kostaldetik autoa gidatzen agertzen da Thao irribarretsu; film osoko paisaia zabal eta argiena da. **Era honetan, osatu egiten da belaunaldien arteko transmisioa: Waltek Thaori utziko dizkio beretzat baliotsu izan diren gauzak, bizian zehar berarekin izan ditzen.** Baina, batez ere, **hazten eta zoriontsu izaten lagunduko dizkioten mezuak utzi dizkio.**



AMAIERAKO ARIKETA

Azken atal honen helburua hausnarketa-ariketa bat egitea da, orain arte jorratutako funtsezko gaiak bilduko dituen, ikasleei ikuspegi globala eta konstruktiboa lortzeko aukera izateko emango dieten ideia eta ondorio ordenatuak lortzeko, film luzetik eta planteatutako jardueretatik abiatuta.